



berrikuntza + ikerketa + osasuna eusko fundazioa  
fundación vasca de innovación e investigación sanitarias

**EBAZPENA, BERRIKUNTZA, IKERKETA ETA OSASUNAREN EUSKAL FUNDAZIOAREN (AURRERANTZEAN, BIOEF) PATRONATUKO PRESIDENTEORDE ETA AHALDUN NAGUSIARENA, 2022ko MAIATZAREN 19an ONARTU ZEN ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO BIOEFen LAN-ESKAINTZA PUBLIKOAN JASOTAKO LANPOSTUAK BETETZEKO HAUTAPEN-PROZESUEN HARIRA SORTUTAKO LAN-POLTSEN FUNTZIONAMENDU-ARAUAK ONARTZEN DITUENA.**

Enplegu Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriak ezarri dituen abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2. artikuluan eta seigarren, zazpigarren eta zortzigarren xedapen gehigarrietan xedatutakoaren arabera, Berrikuntza, Ikerketa eta Osasunaren Euskal Fundazioaren Patronatuak BIOEF - Berrikuntza, Ikerketa eta Osasunaren Euskal Fundazioaren Lan Eskaintza onartu zuen 2022ko maiatzaren 19an, lanpostuak egonkortzearen.

Deialdi horren oinarri orokorrek 13. artikuluan diote lan-poltsak sortuko direla hautapen-prozesuen harira, eskainitako lanpostuak hutsik geratzen direnean betetzeko, baldin eta haiek betetzeko ordezte-kontratu bat egin badaiteke, eta lan-poltsa horren funtzionamendu-arauak BIOEFen iragarki-taulan eta webgunean argitaratuko direla.

Hortaz, Fundazioaren Patronatuak emandako ahalmenez baliatuta,

EBATZI DUT

1.- Aldi baterako enplegua egonkortzeko BIOEFen lan-eskaintza publikoan jasotako lanpostuak betetzeko hautapen-prozesuen harira sortutako lan-poltsen funtzionamendu-arauak onartzea.

2.- Aldi baterako enplegua egonkortzeko BIOEFen deialdien oinarri orokorretan ezarritakoaren arabera, funtzionamendu-arau horiek BIOEFen iragarki-taulan eta webgunean argitara daitezen onartzea.

Stua.: Maria Angeles Ibarrodo Unamunzaga

Patronatuaren presidenteordea eta ahaldun nagusia

Barakaldon (Bizkaia), 2023ko urtarrilaren 20an

## I. ERANSKINA

### BERRIKUNTZA + IKERKETA + OSASUNA EUSKO FUNDAZIOAREN (BIOEF) LAN-ESKAINZA PUBLIKOKO PLAZAK BETETZEKO HAUTAPEN-PROZESUETAN SORTUTAKO LAN-POLTSEN FUNTZIONAMENDU-ARAUAK

#### I

### ARAU OROKORRAK

Lehenengoa. \_Lan-poltsen xedea.

BIOEFen lan-eskaintza publikoko plazak betetzeko hautapen-prozesuetan sortutako lan-poltsen helburua da hutsik dauden halako plazak betetzea, baldin eta haiek betetzeko ordezte-kontratu bat egin badaiteke.

Bigarrena. \_Kontratu-baldintzak.

Gauzatzen diren kontratuak kontratazio-beharra sortu duen egoeraren arabera egokiena den modalitatearekin gauzatuko dira, eta bitarteko kontratuetatik eratorritako langile-beharrei erantzungo zaie, aldi baterako kontratu bidez, momentu bakoitzean aplikagarria den araudiaren arabera.

Lan-kontratuan, egingo den jardunaldia eta beteko den lanpostuaren identifikazioa zehaztuko dira.

Kontratuak izan ahalko dira lanaldi osokoak edo lanaldi partzialekoak, azken kasu honetan ordainsarian dagokion murrizketa aplikatuta.

Beteko den plazari unean-unean dagokion soldataren arabera izango da ordainsaria (dagokion eskaintzan argitaratutako soldata gehi gehikuntza orokor posibleen ondoriozko aldaketak).

#### II

### OSAERA ETA INDARRALDIA

Hirugarrena. \_Osaera.

Hautapen-prozesuetan onartu bai baina hautatu ez diren izangaiek osatuko dituzte lan-poltsak. Edonola ere, lan-poltsa osatu nahi ez dutenek uko egin ahal izango diote, I. eranskina beteta: Lan-poltsa osatzeari uko egiteko gutuna. Dokumentua bete eta sinatu

ondoren, posta elektronikoz bidali beharko dute, helbide honetara: [rrhh@bioef.eus](mailto:rrhh@bioef.eus). Uko egiteko gutuna jaso ondoren, poltsak eguneratu egingo dira, eta hala eskatu dutenak kanpo geratuko dira.

Uko egin arren, aurrerago sortzen diren lan-poltsetan ere sartu ahal izango dira.

Laugarrena. \_Indarraia.

Kasuan kasuko hautapen-prozesuan hautatutakoen lan-kontratuak sinatu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean lan-poltsak.

BIOEFen lan-eskaintza publikoko plazak betetzeko egiten diren hautapen-prozesuen ondoriozko lan-poltsak plaza horietarako beste lan-poltsa batzuk osatu arte egongo dira indarrean, eta geroagoko hautapen-prozesuen ondoriozkoek ordeztuko dituzte.

Kasu hauetan, beste lan-poltsa batzuk sortzea komeni den aztertuko da:

- Lan-poltsetan daudenak "libre" ez badaude, eta
- Aurreko lan-poltsak sortu zirenetik bost urte igaro badira.

### III

## LAN-POLTSAREN FUNTZIONAMENDUA

Bosgarrena\_Lan-poltsak osatzen dituzten pertsonen deitzeko araubidea.

Sortutako lan-poltsak independenteak dira, baina haietan dauden plaza hutsak betetzeko prozesua bera da:

Bat. Zerrendaren barruko ordena zorrozki errespetatuta deituko zaie hautagaiei.

Bi. Lan-poltsa osatzen dutenek, hala eskatzen zaienean, hautapen-prozesuan parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dagozkien oinarrietan eskatzen diren dokumentuen jatorrizkoak aurkeztuko dituzte.

Adierazitako epe barruan, eta ezinbesteko kasuak salbu, lan poltsa osatzen dutenek ez badute eskatutako dokumentazioa aurkezten edo ez badute egiaztatzen eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela, ezingo dira pertsona horiek kontratatu eta jarduketa guztiak deuseztatu egingo dira, eskabideko faltsutzearen ondoriozko erantzukizun posiblea kaltetu gabe.

Hiru. Lehenik, telefonoz emango zaio horren berri hautatutako pertsonari, eta kontratu-baldintzak jakinaraziko zaizkio. Pertsona horrek 24 ordu izango ditu lanpostua onartzen edo baztertzen duen adierazteko.

Telefono-deia jaso dutenei posta elektronikoz bidaliko zaizkie kontratu-baldintzak, idatziz, eskaeran adierazi zuten helbide elektronikora. Fundazioak mezu elektronikoa entregatu

izanaren agiria jaso eta gehienez 24 orduko epea izango du hautatutakoak kontratua onartzeko edo baztertzeko.

Erantzuten ez badu, edo epe horretatik kanpo erantzuten badu, kontratuari uko egiten diola ulertuko da; arrazoirik gabe uko egin diola adieraziko da, eta zerrendako azken tokian jarriko da, "libre" egoeran. Kasu horretan, zerrendako hurrengo tokian dagoenari deituko zaio.

Bestetik, dagokion hautagaiarekin harremanetan jartzerik egongo ez balitz, telefonoz gutxienez ere bi saiakera egin ondoren, egun eta ordu desberdinetan, idatzizko komunikazio bat bidaliko zaio, posta elektronikoz. Hautagaiak gehienez ere 24 ordu izango ditu kontratua onartzen edo baztertzen duela jakinarazteko, posta elektronikoa entregatzen den momentutik aurrera.

Erantzuten ez badu, edo epe horretatik kanpo erantzuten badu, lanpostuari arrazoirik gabe uko egin diola ulertuko da, ondorio guztietarako, baita kontratuari ere, eta puntuazio-ordenari jarraikiz zerrendan dagoen hurrengoari deituko zaio. Uko egin diona zerrendako azken tokian jarriko da, "libre" egoeran.

Lau. Kasuan kasu, erabiliko den kontratu-modalitatea, jardunaldia eta, ahal denean, kontratuaren iraupena adieraziko dira, idatziz.

Seigarrena. \_Hautagaiak uko egitea.

Bat. Deia jaso duen hautagaiak arrazoirik gabe uko eginez gero, zerrendan duen tokia galduko du eta zerrendako azken tokian jarriko da, "libre" egoeran. Bi deiri uko egiten dieten pertsonak, justifikaziorik izan ezean, automatikoki geldituko dira lan poltsatik kanpo.

Bi. Eskaintzari arrazoiz uko egiten zaiola esango da (eta, ondorioz, hautagaiari ez zaio poltsatik baja emango) epe barruan egoera hauetako bat egiaztatzen bada frogabide egokien bitartez:

- Gaixotasun egoera batean egotea, mediku ziurtagiri bidez egiaztatua. Gaixotasun bat izatea edo gaixotasun edo istripu batetik sendatzeko prozesuan egotea, dagokion mediku txostena aurkeztuta justifikatuko dena.
- Ezkontidearen edo bigarren gradura arteko ohol ahaidetasuna duen senide baten gaixotasun oso larria, mediku ziurtagiri bidez egiaztatua.
- Baimen edo lizentzien helburuetarako indarrean dagoen araudian aurreikusita dauden egoeretako batean egotea, haurdunaldi, erditze, adopzio edo harrera kasuan edo senide baten gaixotasun larria dela eta.
- Amatasun/aitatasun atsedenaldian egotea.
- Eskaintza jasotzean lanean aritzea. Laneko bizitzari buruzko txostenaren bidez egiaztatu beharko da.
- Beste edozein arrazoi, behar bezala egiaztatuta, baldin eta zuzendaritzak onartzen badu.

Hiru. Aurreko atalean aurreikusitako arrazoietakoko baten ondorioz uko eginez gero, behar bezala justifikatu beharko da arrazoiak desagertu dela, berriz ere lan-eskaintzak jaso ahal izateko.

Lau. Eskaintako lan-kontratuari uko eginez gero (arrazoiarekin edo arrazoirik gabe), horren berri eman beharko da, idatziz, posta elektronikoz bidez, rhh@bioef.eus helbidera idatzita, eta hau adieraziko da:

- Izena, bi abizen eta IFZ,
- uko egiteko arrazoia (gaixo egotea, deia jasotzean lanean aritzea, justifikatutakoen artean jasotako bestelako arrazoi bat, edo egiaztatutako eta Zuzendaritzak onartutako beste arrazoi bat)
- Adierazitako egoera justifikatzen duen egiaztapen-dokumentazioa, justifikatuta baldin badago

Hau adieraziko da mezu elektronikoaren gain: Lan-poltsa - Lan-kontratuari uko egitea.

BIOEFek ez badu jasotzen uko egitearen berri ematen duen mezu elektronikoa, edo dagozkion egiaztagiririk gabe jasotzen bada, lan-eskaintzari arrazoirik gabe uko egiten zaiola ulertuko da.

Zazpigarrena. \_Lan-poltsak osatzen dituzten pertsonen egoerak.

Lan-poltsak osatzen dituzten hautagaiak jarraian adierazitako egoeretako batean egongo dira:

1.- LIBRE: Aldi baterako kontratazio baterako deia jasotzeko zain dauden lan-poltsatako hautagaien zerrendan daudenak egongo dira egoera honetan.

Egoera honetan daudenek lan-eskaintzak jaso ahal izango dituzte. Ezinbestekoa da "libre" egotea lan-eskaintzak jaso ahal izateko.

2.- EZ LIBRE: Hauek egongo dira egoera honetan:

- Deia jasotzean lanean ari direlako modu justifikatuan borondatez uko egiten diotenak (laneko bizitzari buruzko txostenaren bidez egiaztatuko dute).
- Kontratu indarrean den bitartean lan-eskaintza onartu ondoren hari uko egiten diotenak.
- Beste arrazoiaren batengatik uko egiten diotenak, baldin eta arrazoia behar bezala egiaztatuta badago eta zuzendaritzak onartzen badu.

Egoera horretatik "libre" egoera pasatuz gero, Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioari jakinarazi behar zaio, posta elektronikoz, rhh@bioef.eus helbidera idatzita, eta hau adieraziko da:

- Izena, bi abizen eta IFZ
- Dagokion lan-poltsaren erreferentzia
- "Libre" egotera pasatzeko eskaera

Hau adieraziko da mezu elektronikoaren gain: Lan-poltsa - Egoera-aldaketa.

3.- AKTIBO: Dagokion lan-poltsaren aplikazio-eremuan deia jaso ondoren kontratatuta dauden pertsonak soilik daude egoera honetan.

Langile aktiboak "libre" egoerara igaroko dira indarrean duten kontratua amaitu baino zazpi egun baliodun lehenago, baldin eta data hori aurreikusitako modukoa bada.

Fundazioak beste hautapen-prozesu batzuen harira kontratatzen dituen pertsonak "libre" egoeran daudela ulertuko da deirik jasotzen ez badute; deiren bat jasoz gero adieraziko dute eskaintza onartzen dutela, edo lanean ari direlako uko egiten diotela, eta "aktibo" edo "ez libre" egotera pasatuko dira.

4.- EZIN AURKITUZKOA: Ofizioz alta emango zaie egoera honetan mezularitza elektronikoz edo posta ziurtatu bidez bidalitako jakinarazpenei edo telefonoz egindako deiei erantzuten ez dieten lan-poltsetako hautagaiei, baita euren helbidearen, helbide elektronikoaren edo telefono-zenbakiaren aldaketa jakinarazi ez izanagatik aurkitu ezin diren eta mezularitza elektronikoz edo posta ziurtatu bidez jasotako jakinarazpenei edo telefonoz egindako deiei erantzuten ez dieten lan-poltsetako hautagaiei ere. Egoera horretan daudenei ez zaie lan-eskaintzarik egingo.

Ezin aurkituzko egoera mantendu egingo da hautagaiek haiekin harremanetan jartzea ahalbidetzen duten datu berriak jakinarazi arte.

5.- ALDI BATERAKO BAJA: aldi baterako bajaran egongo dira jarraian adierazitako egoeretako batean dauden pertsonak:

- Gaixotasun egoera batean egotea, mediku ziurtagiri bidez egiaztatua. Gaixotasun bat izatea edo gaixotasun edo istripu batetik sendatzeko prozesuan egotea, dagokion mediku txostena aurkeztuta justifikatuko dena.
- Ezkontidearen edo bigarren gradura arteko ohol ahaidetasuna duen senide baten gaixotasun oso larria, mediku ziurtagiri bidez egiaztatua.
- Baimen edo lizentzien helburuetarako indarrean dagoen araudian aurreikusita dauden egoeretako batean egotea, haurdunaldi, erditze, adopzio edo harrera kasuan edo senide baten gaixotasun larria dela eta.
- Amatasun/aitatasun atsedenaldian egotea.

Atal honetan azaldutako egoerak justifikatzen dituzten arrazoiak desagertzean, hautagaiek aldaketa hori jakinarazi beharko diote Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioari, posta elektronikoz bidez, [rrhh@bioef.eus](mailto:rrhh@bioef.eus) helbidera, eta hau adieraziko dute:

- Izena, bi abizen eta IFZ
- Dagokion lan-poltsaren erreferentzia
- "Libre" egotera pasatzeko eskaera.

Hau adieraziko da mezu elektronikoaren gaian: Lan-poltsa - Egoera-aldaketa

6. - BEHIN BETIKO BAJA: Hauek egongo dira behin betiko bajako egoeran:

- Borondatez hala eskatzen dutenak.
- Adierazitako justifikazioetako bat ez badago edo justifikazioa egiaztatzen ez bada bi aldiz uko egitea.
- Hautatuta egon arren probaldia gainditu ez dutenak.

Zortzigarrena. \_Lan-poltsak osatzen dituzten pertsonen zerrendak.

Arrazoi hauengatik eguneratuko dira lan-poltsetakako pertsonen zerrendetako egoera eta tokia:

- Dei bat jasotzea.
- Zerrendako norbaitek borondatez uko egiteko jakinarazpen bat bidaltzea BIOEFi.
- Zerrendako norbaitek egoera aldatu zaiola esateko jakinarazpen bat bidaltzea BIOEFi.
- Deia egin ondoren, BIOEF konturatzeko funtzionamendu-araudian aurreikusitako zerbait gertatzen dela eta haren ondorioz zerrendakoren baten egoera aldatu behar dela.
- Deia egin ondoren, norbaitek bigarren aldiz lan-eskaintzari uko egitea, justifikaziorik gabe edo balio duen justifikaziorik gabe.
- Lan-poltsak osatzen dituztenen egoera edo tokia aldatzea dakarren beste edozein arrazoi egotea.

Argitaratutako azken zerrenda erreferentzia gisa hartuta, beste zerrenda bat prestatuko da, dagokion lan-poltsa osatzen dutenen egoera eta toki berriekin, eta zerrenda berria BIOEFen webgunean argitaratuko da. Zerrenda horrek indarrean dagoena ordeztuko du.

## IV

### ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

Bederatzigarrena. \_ Eskubideak

Lan-poltsaren barne egoteak, bere horretan, ez du inolako kontratazio-eskubiderik sortuko.

Poltsak osatzen dituzten pertsonak lan-poltsatik borondatez baja emateko eskatu ahal izango dute.

Eskatzaileak une oro jakin ahal izango du BIOEFek berari buruzko zein datu pertsonal tratatzen duen, eta araudiak ematen dizkion eskubideak baliatu ahalko ditu, helbide honetan: BEC Dorrea (Bilbao Exhibition Centre) - Azkue Erronda 1, 48902 Barakaldo (Espainia), NANA atxikita.

Hamargarrena. \_ Betebeharrak

Kontratutako langileak Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioari unean-unean aplikagarria zaion araudiaren pean egongo dira.

Izapideak: Izapideak egiteko, langileek posta ziurtatua erabiliko dute, edo, bestela, BIOEF Fundazioaren Erregistrora hurbildu, BEC dorrean (Bilbao Exhibition Centre, Ronda de Azkue 1, 12. solairua, 48902 Barakaldo, Bizkaia).

Harremanetarako datuak eguneratuta edukitzea: Jakinarazpenetarako, eskaeran adierazitako harremanetarako datuak erabiliko dira: telefonoa, helbide elektronikoa eta posta-helbidea. Akatsik baldin badago, hautagaien erantzukizuna izango dira. Halaber, hautagaiaren ardura izango da datu horiek eguneratuta edukitzea. Datu horietan aldaketarik izanez gero, hautagaiak eman beharko du aldaketaren berri, posta elektronikoz, [rrhh@bioef.eus](mailto:rrhh@bioef.eus) helbidera idatzita.

## V

### DATUEN BABESA

Hamaikagarrena. \_Datu pertsonalen babesa.

Datu pertsonalen babeserako araudian xedatutakoa betez ((EB) 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, "Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra" edo "RGPD", gaztelaniako akronimoaren arabera, eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babestekoa eta eskubide digitalak bermatzekoa) xedatu egiten da helarazitako datu pertsonalak

- Zure baimenarekin tratatuko dituela datu horiek BIOEFek, dagozkion deialdien oinarrietan xedatutakoari jarraituta eman baitziren.
- Lan-poltsak sortzeko langileen erregistro bat kudeatzeko asmoz tratatuko dira. Parte-hartzaileek emandako datuak dagozkion deialdien oinarrietan aurreikusitako xedeetarako baino ez dira erabiliko.
- Erregistroa indarrean dagoen bitartean tratatuko dira datuak, eta, epe hori amaituta, baita BIOEFen erantzukizunei eta jardueren kontrolari dagokienez legez xedatutako epeetan zehar ere. Halaber, eskatzaileak edozein momentutan bota ahalko du baimena atzera, araudi honetan xedatutakoaren arabera.
- Eskatzaileak une oro jakin ahal izango du BIOEFek berari buruzko zein datu pertsonal tratatzen dituen, eta araudiak ematen dizkion eskubideak baliatu ahalko ditu helbide honetan: BEC dorrea (Bilbao Exhibition Centre), Azkue ingurabidea 1, 48902 Barakaldo (Espainia), NANA atxikita. Eta eskubide hauek baliatu ahalko ditu:
  - Datuak atzitzeko eskubidea: tratatuko diren datu pertsonalen gaineko informazioa ezagutu eta eskuratzea ahalbidetzen du.
  - Datuak zuzentzeko eskubidea: akatsak zuzentzea, datu okerrak edo osagabeak aldatzea eta tratatuko den informazioa egiazkoa dela bermatzea ahalbidetzen du.
  - Datuak ezabatzeko eskubidea: tratamenduaren xede diren datuak ezabatzeko eskatzea ahalbidetzen du.
  - Datuei aurka egiteko eskubidea: zure datu pertsonalen tratamendua ez egiteko edo tratamendua bertan behera uzteko eskubidea, legezko arrazoirik ez badago edo erreklamazioak egin edo defendatzeko ez bada behintzat, eta, hori gertatzen bada, blokeatu egingo ditugu dagokion epean, legezko betebeharrak dirauten bitartean.



- Datuen tratamendua mugatzea: Zenbait egoeratan, interesdunek euren datuen tratamendua mugatzea eska dezakete. Kasu horretan, erreklamazioak jarri edo haietatik defendatzeko bakarrik gordeko dira.
  - Banakako erabaki automatizatuen (profilak egitea barne) eraginik ez jasotzeko eskubidea: guregan ondorioak izan ditzakeen edo nabarmen eragin diezaguketan tratamendu automatizatueta oinarritutako erabakien eraginik ez jasotzeko eskubidea.
  - Datuen eramangarritasunerako eskubidea. Legez ezarritako egoeretan eta teknikoki posible bada.
- BIOEFek Datuen Babeserako ordezkari bat du, indarrean dagoen araudia beteaz, eta harekin harremanetan jarri ahal izango da hurrengo helbidean: [dpd@bioef.eus](mailto:dpd@bioef.eus).
  - Kontrol Agintaritzan erreklamazioak aurkezteko aukera: BIOEFek jakinarazten dizu, halaber, Datuak Babesteko Euskal Bulegoan ([www.avpd.eus](http://www.avpd.eus)) edo Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan ([www.aepd.es](http://www.aepd.es)) erreklamazioak aurkezteko eskubidea dagokizula, uste baduzu zure datuen tratamendua ez datorrela bat indarreko araudiarekin.
  - Araudi honetan xedatutakoa betez, zure datuak dagozkien zerrendetan argitaratu ahalko dira, 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, datu pertsonalak babestekoak eta eskubide digitalak bermatzekoak, zazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera eta Datuak Babesteko Espainiako Bulegoak ezarritako gomendioen arabera.

## VI

### SUNTSIARAZPENAK

Hamabigarrena. \_ Lan-politsetako kideen zerrenda.

Hautapen-prozesuetan onartu bai baina hautatu ez diren izangaiak osatuko dituzte lan-poltsak.

Hautapen-prozesuak amaitutakoan (hau da, hautapen-prozesuetan aurreikusitako kontratu guztiak izenpetzen direnean), eraturako lan-politsetako bakoitza osatuko duten pertsonen zerrendak argitaratuko dira, lehenatasun-ordenaren arabera, Patronatuaren presidenteordeak eta ahaldun nagusiak emandako ebazpenaren bidez, ezarritako irizpideei jarraikiz.

Hamahirugarrena. \_ Lan-poltsak osatzen dituztenen zerrenda eguneratua.

Lan-poltsak osatzen dituztenen egoeran aldaketarik baldin badago, Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren webgunean argitaratuko dira zerrenda eguneratuak, I+G kudeatzeko koordinatzaileak emandako ebazpen bidez, ezarritako irizpideei jarraikiz.

Poltsetako kideen zerrendak eta ondorengo zerrenda eguneratuek publizitate- eta gardentasun-printzipioak betetzeko beharrezko gutxieneko datu pertsonalak izango dituzte.

## VII

### LAN-HARREMANA FORMALIZATZEA

Lan-kontratua formalizatzeko, BIOEFek horretarako beharrezkotzat jotzen duen dokumentazioa eskatuko dio hautatutakoari: IFZren fotokopia, banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia eta behar den beste edozein dokumentu.

Dagozkion lan-poltsetako kideei deitu ondoren, lan-kontratua zein egun eta orduan sinatuko duen adieraziko zaio hautatutakoari, Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren egoitzan (Barakaldo).

Adierazitako egunean eta orduan, eta ezinbesteko kasurik ezean, Fundazioaren egoitzara dagozkion lan-kontratua sinatzera bertaratzen ez direnek deialdiaren ondorio diren eskubide guztiak galduko dituzte, eta organo eskudunak proposatuko du hurrengo hautagaia kontratatzea, kasuan kasu dagozkion lan-poltsak osatzen dituztenen zerrendako ordenari jarraikiz.

## I. ERANSKINA

Lan-poltsa osatzeari uko egitea

**Izena, 1. abizena, 2. abizena, XXXXXXXXA,**

jaunak/andreak, ..... plaza betetzeko hautapen-prozesuaren harira Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioaren (BIOEF) osatutako lan-poltsako kideetako bat naizen heinean, honen bidez **UKO EGITEN DIOT** lan-poltsa horretako kide izateari.

Hau sinatzen dut, dagozkion ondorioetarako, (e)n, 202 (e)ko ren (e)(a)n,

(Sinadura)